

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**99/2024 Foru Agindua, urriaren 23koa. Karrerako funtzionario izendatzea karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikari klasea (101 deialdia, psikologoa) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko lan-eskaintza publikoaren egonkortzeko salbuespenezko prozesuari dagokiona**

Onartzea, abenduaren 26ko 170/2022 Foru Agindua (maiatzaren 25eko 186/2023 Foru Aginduak aldatua), zeinaren bidez oinarri orokorrak onartzen baitira aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokion Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde karrerako funtzionario izateko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko lan-eskaintza publikoaren egonkortzeko salbuespenezko prozesuari dagokiona.

Aipatutako foru-aginduaren 10. oinarrian xedatutakoaren arabera, 8. eta 9. oinarrietan aurreikusitako izapide guztiak amaituta, epaimahai kalifikatzaileak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu-atarian argitaratuko du hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda ([www.araba.eus/ifbs/portalempleo/](http://www.araba.eus/ifbs/portalempleo/)), eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamen gisa, Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuari helaraziko dio.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2022ko enplegu publikoaren eskaintzari dagokion administrazio bereziko eskalan sartzeko, azpieskala teknikoan, goi-mailako klase teknikoan, 101 deialdia, psikologoa, egonkortzeko salbuespenezko prozesua, epaimahai kalifikatzaileak 2024ko urriaren 18an egin zuen izendapen-proposamen gisa hautatutako pertsonaren behin betiko zerrenda.

Oinarri orokor horietako hamaikagarrenean aurreikusitakoaren arabera, behin izendapen-proposamena hautatuen behin betiko zerrendaren bidez jaso ondoren, Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuari dagokio, foru agindu bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde karrerako funtzionario izendatzea behin betiko zerrenda horretako kidea.

Aipatutako oinarri orokorrak betez eta funtzio publikoaren arloan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluko lehendakari gisa Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onartzen duena,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde karrerako funtzionario izendatzea administrazio bereziko eskalan, azpieskala teknikoa, goi-mailako teknikari klasea, psikologoa, eta adierazten den lanpostuari atxikita, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako enplegua egonkortzeko 2022ko lan-eskaintza publikoari dagokion deialdiaren ondorioz, honako pertsona hau:

NAN	LANPOSTUA
30.575.103	13.001 PSIKOLOGOA

Bigarrena. Izendatutako hautagaiak hilabeteko epea izango dute lanpostuaz jabetzeko, foru agindu hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Epe horri hamabost (15) egun naturaleko beste bat gehitu ahal izango zaio izangaiak hala eskatzen badu, betiere, ezinbesteko arrazoi justifikatua tartean bada. Ezarritako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, lanpostuaz jabetzen ez denak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen funtzionario-izaera eskuratzeko eskubide guztiak galduko ditu, deialdiaren ondorioz.

Hirugarrena. Funtzionario sartu berria esleitutako lanpostura behin betiko atxikitzea, ondorio guztietarako, lanpostuak betetzeko gordeta dagoen sistemaren bidez lortuzat joko da.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsoa, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluari loturik-aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 23a

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**GORKA URTARAN AGIRRE**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**